# BESTELAKO XEDAPENAK

## SEGURTASUN SAILA

## 2092

*EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 5ekoa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (307/2013- C prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak epatzeko dena.*

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (307/2013-C prozedura laburtua) aurkeztu da, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariaren 2013ko apirilaren 23ko Ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bitartez, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente lehena kategorian sartzeko hautaketa prozeduraren praktika-aldia gainditu duten praktiketako agente lehenen zerrenda argitaratzen da (2011ko urtarrilaren 18ko EHAA, 11. zk.). Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegiak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenak epatzen dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin dezaten.

Arkauti, 2014ko maiatzaren 5a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.